

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako eraikuntza eta lan publikoak sektorearentzako 2017ko lan-egutegia

Ebazpena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da Arabako eraikuntza eta lan publikoak sektorearentzako 2017ko urterako lan egutegia erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01000435011981.

AURREKARIAK

2017ko urriaren 27(e) an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen UNECA eta langileen ordezkariek UGT eta CCOO, 2016ko urriaren 25(e) ko paritaria-mahaian sinatutakoa, 2017ko urterako lan egutegia.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2011ko apirilaren 4ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren paritaria batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 11

Arabako lurralde ordezkarria
ÁLVARO IRADIER ROSA

Akta, Arabako eraikuntza eta herri-lanen industrien sektorearen hitzarmen kolektiboaren negoziazio-batzordearena

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 25ean, bildu dira "UNECA" Arabako Eraikuntzaren Sektorearen Batasunaren egoitzan (Posta kalea 32, 6.), CCOO eta UGT sindikatuen ordezkariak eta "UNECA" Arabako eraikuntzaren sektorearen batasunaren ordezkariak, horiek guztiak Arabako eraikuntza eta herri-lanen industrien sektorearen hitzarmen kolektiboaren negoziazio-batzordeko kideak baitira, eta hau

Adostu dute

1. Arabako eraikuntzaren sektorearen 2017ko lan-egutegia onartzea.

Lantokietarako lan-egutegi propiorik egiten ez duten enpresetan, 1.726 orduko lanaldi errealerara iristeko, 2017ko egutegi honetan jaieguntzat jotzen diren egunak jaiegun izango dira. Egutegi hori 2016ko urriaren 10eko ALHAOn argitaratu zen.

Uztailaren 24a, urriaren 13a, azaroaren 2a eta 3a, abenduaren 7a, eta abenduaren 26a, 27a, 28a eta 29a benetako lanaldira iristeko ordu-kompentsaziotzat hartuko dira. Irailaren 11ko lanaldia 6 ordukoa izango da.

2. Arabako lurralde historikoko herrietan, Vitoria-Gasteiz ez beste guztietan, abuztuaren 5eko jaiegunaren ordez tokiko beste jaiegun bat hartuko da, 2016ko urriaren 10eko ALHAOn (113 zk.) jasotakoaren arabera.

3. Lan-egutegia langileen lege-ordezkaritzarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, baldin eta 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen formalizatu bada, eta langileen lege-ordezkaritzarik ez badago, langileekin beste lan-egutegi bat hitzartzen bada eta Arabako eraikuntzaren hitzarmenaren batzorde parekideari (PRECO Landaberde kalea, 35, behea, 01010 Vitoria-Gasteiz) bidaltzen bazaio 2017ko otsailaren 15a baino lehen.

Eta aztertu beharreko bestelako gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da goian aipatutako toki-egunetan. Nik, idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut, eta bertaratuek akta sinatu dute, bertan jasotakoarekin ados daudela adierazteko.

Arabako eraikuntza eta herri-lanen hitzarmeneko lan-egutegia, 2017																							
Urtarrila							Otsaila							Martxoa									
Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig			
						1			1	2	3	4	5			1	2	3	4	5			
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	6	7	8	9	10	11	12			
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	13	14	15	16	17	18	19			
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	20	21	22	23	24	25	26			
23	24	25	26	27	28	29	27	28						27	28	29	30	31					
30	31																						
Orduak 168							Orduak 160							Orduak 184									
Apirila							Maiatza							Ekaina									
Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig			
					1	2	1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4			
3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11			
10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18			
17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25			
24	25	26	27	28	29	30	29	30	31					26	27	28	29	30					
Orduak 128							Orduak 176							Orduak 176									
Uztaila							Abuztua							Iraila									
Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig			
					1	2	1	2	3	4	5	6					1	2	3				
3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10			
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	11*	12	13	14	15	16	17			
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24			
24	25	26	27	28	29	30	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30				
31																							
Orduak 152							Orduak 176							Orduak 166									
Urtaria							Azaroa							Abendua									
Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig	Al	Ar	Az	Og	Ol	Lr	Ig			
						1			1	2	3	4	5					1	2	3			
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10			
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17			
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24			
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31			
30	31																						
Orduak 160							Orduak 152							Orduak 104									
Lan-orduuen kopurua: 1.902																							
Hitzarmen-orduak: 1.726																							
Opor-orduak: 176 orduak (22 lanegun)																							

	Jaia
	OK

- 6 orduz lan egingo da.
- Egutegi hau nahitaez bete beharrekoa da enpresan, ondoko kasuetan izan ezik:
- Langileen ordezkaritza badago, eta harekin beste bat adosten bada, 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen.
- Legezko ordezkaritzarik egon ezean, 2017ko otsailaren 15a baino lehen beste bat hitzartu eta arabako eraikuntzaren hitzarmeneko batzorde paritariora bidaltzen bada (PRECO. Landaberde 35, behe, 01010 Vitoria-Gasteiz).